

ZESUMA

Txapelketen jirabiran

Trikitixaren historian txapelketek izan duten lekua ezagutzeko asmoz, hona hemen Inpernuko Poza jardunaldietako hitzaldi eta mahai-inguruetan txapelketan inguruan esandako eta gogora ekarritakoen mustratxo bat.



- 1933, 1934, 1036

Aurreneko hiru txapelketak Kandido Beristainek irabazi zituen.

Joxe Mari Iriondo: "Beti aipatzen zen Jazinto Rivas Elgeta, baina trikitixa jo, hobeto jotzen zuen Beristainek, eta musika zekien".

- 1970. hamarkadako txapelketak

Joxe Mari Iriondok jarri zuen abian, eta jendearen aldetik oso erantzun ona izan zuten.

Faustino Azpiazu Sakabi, kezkatu: "Bai, baina orain bezain adiskide izango al gara gero?"

- 1980. hamarkadako trikitixazaleen hausturaren adierazle:

I. Arregi (1988): "Askoren ustetan soinu txikiz jotzen den guztia trikitixa da. Eta ori ez da horrela. Trikitixa abestia daraman aire berezi bat da, fandangoa eta arin-arinarekin zer ikusirik ez duena".

Kepa Junkera: "Aniztasunak edo ideia ezberdinek ez al dute lekuri? Ez al da zilegi aurrerakuntzak egitea? Zergatik ezin dira beste tonu batzuk erabili, edo pieza beste era batera hasi, edo dantzari begira ez dauden piezak jo, jendeak entzun besterik egin ez dezan?"

- 1990. urtean Trikitixa Elkartearen sorrera:

Esteban Larrañaga: "Hamabi galdera egin eta zortzitan ageri da txapelketa".

Bi txapelketa egiteko asmoa ere aipatu zuen Larrañagak, estilo zaharrari eusteko bata, eta abildadea eta digitalizazioa erakusteko bestea. Bakarra egin zen, ordea, eta huraxe azkena (1991).

- Trikitixaren V. Jardunaldiak (2007)

Joseba Tapia: "Txapelketa atzerapauso handia da artistikoki, nork bere bidea hartzea galarazten baitu".

Oier Araolaza: "Txapelketak ereduak estutu eta zorrozteko makinak dira, eta bere bidetik aldentzen direnak baztertu, itzaleratu eta ezkutzatzeko gaitasun harrigarria dute. (...) Baina ereduaren arteko leihaz haratago, eredu nagusi baten beharra ba ote dagoen da nire kezka".

Imanol Urkizu: "Nik txapelketa festa moduan ikusten dut, ikusle-entzako festa moduan, eta nahi duenak hartzen du parte, besterik gabe. Azken batean, izango litzateke jaialdi bat sari batekin".

KALEJIRAN

Beltran euskal folka zabal-tzen ibili da Ipar Amerikan

Juan Mari Beltran musikari, musika-ikertzaile eta irakaslea Ipar Amerikan izan da, eta lau kontzertu eman ditu orotara: Boisen (Idaho), Samedalen (Idaho), Vancouver-en (Kanada) eta Seattle-n (Washington). Hainbat euskal etxek antolatutako ekimena izan da, eta harrera oso ona izan du. Boiseko unibertsitatean, berriz, euskal musika tradizionalaren berri eman zuen, eta hainbat instrumentu aurkeztu, pare bat orduko hitzaldian.

Kepa Junkera Britainian, Tapia eta Leturia Txekian

Kepa Junkera Britainiako Chartres hirian izan da urriaren 11 eta 12an. Tapia eta Leturia, berriz, egonaldi luzexegoa egin dute Txekian. Urriaren 11tik 20ra bitarte izan dira bertako hainbat herritan, emanaldiak emanez.

GALBAHEA

Kepa Junkera, trikitilaria:

"Musika konposatzen dudanean abesten dut, baina zuzeneko emanaldietan musika instrumenatara gehiago interesatzen zait, abstraktoa da eta aukera handiak eskaintzen ditu, inprobisatzea ere gustatzen zait (...) Bai, trikitixa minoritarioa da. Musika klase guztiek daukate bere publikoa. Ni saiatzen naiz trikitixa irekiagoa egiten. Gauza politikak egin daitezke publiko zabalago batentzat, ez zaio mugarik jarri behar". (Barren, 622. zenbakia, 2007/07/13)

Juan Mari Beltran (Musika irakasle eta musikaria)

"Ezagutzen noan musikarekin hunkitu eta asko gozatzen duen pertsona naiz (...) Soinuak hartu, nire egin eta berriz eskaintzen ditut (...) Alboka, txalaparta eta trikitixa bezalako instrumentuentzat soinu eta aukera berriak sortu ditugu honetan gabiltzan lau katuok. Osasun ona dago". (Berria, 2007/10/4)

Ines (Gose taldeko kidea)

"Euskal Herrian emakume abeslariok gehiagotan sentitu dugu diskriminazio positiboa negatiboa baino. Horrekin ez naiz kezkatuko, gure aldekoa denaren ezerrengatik ez naiz kezkatuko". (Diario de Noticias, 2007/10/05)

Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen Boletina

ALTZA PORRU!

2007ko iraila / 26. zenbakia

EHTE Allemendi 1, 20800 ZARAUTZ · Tel.: 943 83 28 28
www.trikitixa.net / www.trikimailua.com



Euskal Herriko
Trikitixa Elkartea
L.G.: SS-418/01

NAZIOARTEKO TRIKITIXA JAIALDIA

Udazkenarekin batera, trikitixa jaialdiez gozatzeko aukera datorkigu; **azaroaren 9 eta 10ean**, hain juxtu. **Azaroaren 9an**, ostiralean, **Getxoko Getxo Antzokian** izango dugu lehen hitzordua. Jarraian, Pipers tabernan "jam session" delakoa egingo da. Hurrengo egunean, **larunbatean**, trikitixaren soka eten ez dadin, Donostiako **Kursaalgo ganbera aretoa** beteko da jendez, urteroko zitari ezin muzin eginda. Arratsaldeko zazpietan hasiko da jaialdia eta jarraian afaria izango da, Lasarteko Goiegi jatetxean. Bertan ere gozatu ederra hartu ahal izango dute trikitixazaleek, eta leku aproposagoa izango da, gainera, hankak luzatu eta trikitixaren erritmora dantzan aritzeko ere. Hoge euro balio du afaritarako txartelak.

Jaialdiak urtero gai zehatz bat ardatz hartuta antolatzen dira. Hori dela eta, aurtengo bi jaialdiok **soinu mota ezberdinen jiran**

Kanpokoei dagokienez, hiru herrialdetako musikariak hurbilduko dira bai Getxora, bai Donostiara; **Mexiko Berrikoak, Italiakoak, Belgika eta Kataluniakoak**, hain zuzen. Hona hemen bi jaialdietan parte hartuko duten kanpoko musikarien aurkezpen txiki bat:

• Ken Keppeler eta Jeanie McLerie (Mexiko Berria)

Ken Keppelerrek eta Jeanie McLeriek Bayou Seco taldea sortu zuten. Badira 20 urte Estatu Batuetako hego mendebaldeko musika jotzen hasi zirela, eta ikerketa ugari egin dituzte gai honen gainean.

Mississippitik Arizonako deserturaino, tradizioz jasotako hego mendebaldeko musika aurkezten dute, biolina, soinu diatonikoa, gitarra, mandolina, banjoa, harmonika eta flauten bitartez.



• Simone Bottasso (Italia)



tziaiko txapelketetan ere parte hartu izan du, eta 2001 eta 2002an txapeldun izendatu zuten. 1998tik aurrera hainbat taldetan parte hartu du, dantzarako musika, musika esperimentalak, eta folk musika eginez, besteren artean.

• 21 BOuTONS Marinette Bonnert eta Pere Romani (Belgika-Katalunia)

Bikote honen erreperitorioak Belgika eta Kataluniako musika tradizionala uztartzen du, nahiz eta akordeoi diatonikoa dituen beste hainbat joera ere batzen dituzten. Hainbat kontzertu eta dantzaldi eman dituzte elkarrekin, eta joan den otsailean grabatu zuten lehen diskoa.



FABOREZ. 01

Faborez 1 izeneko diskoa bilduma baten hasiera da. Horixe esan nahi du 1 zenbakiak, etorriko direla gehiago, alegia. **Faborez** neskak dantzara ateratzeko hitz bedekatu zen, eta eskaera horixe ekarri nahi da gogora bildumaren izenarekin. Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen bidez argitaratutako lehenengo disko honetan erreperitorio zabala bildu da. Ez dira lotuko doinuak soilik. Erreperitorio zaharrari astindu ederra eman nahi izan zaio, eta **lotuko eta sueltoko piezak** biltzen ditu disko honek.

Musikariak, berriz, gazteak dira, erromeriaz erromeria dabiltzanak eta diskorik atera ez dutenak: **Izer eta Alabier**, **Estanga anai-arrebak**, **Jon Ostolaza eta Rakel Pujana**, eta **Agurtzane eta Ion Elustondo**. Guztira 20 pieza entzun daitezke, eta bikote bakoitzak bost abesti grabatu ditu. Pieza hauek guztiak **tradizio zaharren isla** dira: Debako aitona bat, Laja bera, Zendoia, Laja gaztea, Untzuetza eta Madarixa, Auntxa, Gelatxo, Zumarragako trikitixa, Migel Sagastume *Mago de Urki*, Amurizaren koplak, Martin Aginagalde eta Migel Alberdi Sudupe *Uitte* dira lan honetako benetako protagonistak. Euren bidez jaso eta ikasi dituzte trikitilari gazte hauek pieza hauek; ongi ikasi ere. Hona hemen diskoa osatzen duten abestiak:

Izer eta Alabier

1. EN LA FABRIKA Kalejira
2. IGO ZAITEZ PALMARA Baltsa
3. URTE ZAHAR GAUA Pasodoblea
4. LATZA Bolero-pasodoblea
5. ELZISA-TXISTULARIENA Fandangoa

Estanga anai-arrebak

6. KIZKITZAKO FANDANGOA
7. URIGOITI Pasodoblea
8. MENDI MENDITIK Kalejira
9. DONOSTIAKO KALIEN Trikitixa
10. NERE KANTUA ZERA Fox-kunbia

Jon Ostolaza eta Rakel Pujana

11. DANTZAZALE BAZAUEZE Trikitixa
12. AMAREN PREGUNTIA Porrusalda
13. KAMIÑEROKUA Fandangoa
14. SARGOATE-IRUKURUTZETA Arin-arina
15. ZALDUN GARAIA Pasodoblea

Agurtzane eta Ion Elustondo

16. ALA PORAI! Trikitixa
17. INKIRRINKI Porrusalda
18. FANDANKOA Fandangoa
19. PUTXUNIKETAN Boleroa
20. ZIRRARA Fandangoa

Grabazioa Donostiako **Elkar estudioan** egin zen, eta teknikari-lanetan **Mikel F. Krutzaga** aritu zen. Diskoa **urriaren 26an aurkeztuko da Koldo Mitxelenan** eta **abenduaren 29an** diskoaren aurkezpen modura **erromeria** antolatuko da **Aris-terrazun**. Bertan joko dute diskoko partaideek. Urteroko Inoxente Eguneko afariarekin batera egingo da aurkezpena.



faborez.01



izer eta alabier



estanga anai-arrebak



jon ostolaza eta rakel pujana



agurtzane eta ion elustondo

INPERNUKO POZA TRIKITIXAREN V. JARDUNALDIA, MAMITSUA

Txapelketaren alde ala aurka. Txapelketaren onurak eta kalteak. Txapelketen historia, txapelketen nondik norakoak. Hasiera batean, gai mamitsua izan zitekeena, halaxe suertatu da. **Irailaren 4tik 6ra bitartean, trikitixaren iragana, oraina eta geroa aztertu dira**, jardunaldi hauen aitzakian. Galdera funtsezkoa honakoa: Zer eman edo kendu ote dio txapelketak trikitixari edo beste edozein generori?

Hitzaldi eta mahai-inguruetan txapelketaren inguruko iritzi landuak bildu dira, jardunaldiak harrera ona izan duen seinale. Egutero 30-40 lagun bildu dira, laguntalde polita, beraz. Esan bezala, txapelketen gaiak hautsak harrotu ditu, eta jardunaldia hainbat iritziren bilgune aberats eta interesgarria izan da. Bi ikuspegi azaldu dira, aldekoa eta kontrakoa, biak ala biak egoki argudiatuak, eta, ahalegin horren bidez, entzulea trikitixaren panorama zabalaren jakitun egin da. Bide batez, gizarte moderno honetan trikitixaren eta herri musikaren funtzioa zein den ulertzeko ere balio izan du jardunaldiak.

Miel Anjel Elustondo eta **Joseba Tapiak** hitzaldi bana eman zuten, hurrenez hurren, eta azken egunean, **Koldo**



Iparragirre, Imanol Urkizu eta Oier Araolaza izan ziren **mahai-inguruan Koldo Tapiaren** zuzendaritzapean. Elustondok txapelketen bilakabidea adierazi zuen, gaia ederki kokatuz. Hurrengo egunean, Tapiak, bere esperientzia oinarri hartuta, txapelketaren zauri gozoa izeneko hitzaldia eman zuen, eta txapelketek ibilbide artistikoari oztopo egiten diotela argudiatu. Azken eguneko mahai-inguruan, berriz, askotariko iritziak entzun ziren. Koldo Iparragirre eta Imanol Urkizuren ustez, txapelketek gazteak ezagutarazteko eta erreferente berriak sortzeko balio dute. Oier Araolazak, berriz, ez du eredu edo erreferente baten nagusitasunean sinesten, eta, bere ustez, eredu aniztasunean, elkarbizitzan, legoke alor baten osasuna. Esan bezala, bateko eta besteko iritziak jasotzeko plaza polita bihurtu da jardunaldien formatoa.

ENE BADA TRIKITIXA TALDEAREN AGURRA

Ene Bada trikitixa talde bizkaitarrak azken kontzertua eskainiko du, 10 urteko ibilbidearen ondoren. **Azaroaren 24an** izango da emanaldi hori, **22:00etan, Durangoko Plateruena Kafe Antzokian**.

Bi disko ditu grabatuta taldeak. Ai ene izeneko lehen lanean popa, rocka, reggaea, saltsa, cajun eta tex-mex moduko doinuak ageri dira. Bigarren lanean, berriz, **Uretik izotzera** deiturikoan, Fran Iturberen produkzioaren eragina nabarmena da eta pop aldera jotzen dute. Esan bezala, hemendik aurrera talde honen doinuak entzun nahi izanez gero, diskoetara jo beharko dugu, beren kontzertu eta erromeria bizi eta zuzenak albo batera utziko baitituzte.

